

TALAN FEMINISTA  
JUNEA  
2020



Ol sailaren

ARMEN  
TIA IKASTOLA

21  
ean

## TFEM UNEA 2026

Aurten, galderez gainezka jotzen dugu zuregana, euskal emakume\* subiranista eta independentiston komunitatea elkarrekin eraikitzen jarraitzeko asmoz.

Errealitateak planteatzen dizkigun erronkei aurre egiteko erantzunak bilatzen, bideak asmatzen saiatuko gara Talaia Feminista Unea deitzen dugun urteroko bilkuran. Bertan, guretzat esanguratsuenak izan diren 2025. urteko gertakizunen koiuntura analisi feminista egingo dugu. Etorri, merezi du eta.

### Aurkibidea

PREKARIZAZIO PROZESUAZ .....	1
Sarrera txiki bat, idatzian sartu aurretik .....	1
Prekarizazio prozesuaz .....	1
Prekarietatea .....	2
Erresistentziak eta aldatu nahi ditugun existentziak.....	3
ESKUINERATZE PROZESUAK .....	4
Testuinguru globala eta lekutua .....	4
Feminismoa eta antifaxismoa .....	5
Faxismoa berrezaugarritu.....	5
Eztabaidarako galderak.....	7
SUBIRANOTASUNA LEHIAN .....	9



## PREKARIZAZIO PROZESUAZ

### **Sarrera txiki bat, idatzian sartu aurretik**

Ikusiko duzueenez, eztabaidari bide emateko idatzia hiru ataletan banatu dugu. Ohikoa denez, diagnostikoa partekatuz hasi nahi dugu baina ez dugu ariketa hori egoera deskribatzera mugatu nahi, bizi dugun egoerak zein lekutan kokatzen gaituen da gure zalantza eta proposatzen dizuegun eztabaida. Bigarren urratsa leku horretatik prekarietateari begiratzea izango da, orain arte prekarietateaz eta prekarizazio prozesuaz egin ditugun azterketak baliagarriak diren, edo aldiz, gaurkotu behar ditugun aztertzeko. Eta azkenik, gure buruez arituko gara, Herri, Emakume\*, Feminista garen neurrian, prekarizazio prozesuari aurre egiteko hartutako bideez gogoeta egiteko.

Idatzia eztabaidara bideratzen denez, gidoi bat da. Irekia. Zuzendu, aberastu, osatu edota eztabaidaren mesedetan baztertu behar dena, baztertu. Hori guztia zuen esku, noski!

### **Prekarizazio prozesuaz**

Atzetik datorren zerbait dela kontutan hartuz, eta aurreikusi bezala, gauzak aldatu ezean okerrera egiten dutela jakinda, krisiaren tamaina da berritasuna edo dimentsio ezberdineko krisi berri baten aurrean gaude? Hala bada, zer da aldatu dena eta zer dago jokoan?

Bizitzeko baldintzak gogortzen ari dira merkatua bizitzaren eremu guztietan sartu delako, neurririk eta mugarik gabe. 2008ko krisia baliatuz inposatutako erreformek helburu hori zuten besteak beste. Funtsezkoak diren baliabideen garestitzeak erakusten du hoberen merkatuak mugarik ez duela, eta merkatua gidatzen dutenek ez dutela neurririk.

Ez dago merkatuari mugak jartzeko borondaterik. Ez dago borondaterik eskubideak ziurtatzeko beharrezkoak diren baliabide eta zerbitzuak merkatuaren logikatik ateratzeko, herritarren beharrak interes ekonomikoen gainetik jartzeko. Eztabaidagarria da gainera, borondatea egonez gero, botererik egongo litzatekeen.

Geroz eta baliabide/bitarteko ekonomiko eta politiko gutxiago dago herritarren eskuetan prozesu honi aurre egiteko, edota prozesu honen aurrean babesteko. Datuek erakusten dutenez, herritarren artean bitartekoen banaketa desorekatua da gainera; egoerak ez digularik guztioi berdin eragiten.

Aldi berean, zaintza krisia sakontzen da zaintza negozio berri bihurtuz, eta lan-banaketa sexuala birmoldatzen da, arrazakeriarekin eta migrazioarekin lotutako ezberdintasun ardatzak gogortuz. Prekaritateak presio handiagoa jartzen du zaintza lanetan.

Ondorioak ezagunak zaizkigu: kolektibo ezberdinei modu ezberdinetan eragiten dieten pobrezia eta prekarietatea; esku hartze publikoaren murrizketa, atzerapausoak eskubideetan; aberastasunaren metaketa, geroz eta gutxiago banatzen da, bai mundu mailako eskalan, baita eskala lokaletan ere...

Horiek guztiak ezagunak zaizkigu, baina ez ditugu gaurko neurrian bizitu ongizate-eredua deiturikoa ezarri zenetik. Eta hor dago, gure ustez, eztabaida: krisia ezaguna zaigularik, aldea neurrian dagoen edota bestelako dimentsioa duen krisi batean gauden. Erreproduktzio soziala bera arriskuan jartzen duen krisi baten aurrean gauden, hain zuzen ere.

Nola izendatzen dugun alde batera utzita, garrantzitsua da batean edo bestean gauden aztertzea, egoera berri batean kokatuz gero, orain arte erabili ditugun kontzeptuak edota irakurketak berregin behar ditugulako testuinguru berrira ekartzeko.

## **Prekarietatea**

Lan eta bizi baldintzen galerara mugatzen zen prekarietatearen definizioa feminismoak kritikatu eta osatu zuen bezala, ikuspegi feminista funtsezkoa da orain ere errealitatearen gordintasuna erakutsiko duen argazkitik inor ez geratzeko kanpoan. Baita argazkia interpretatzeko ere, pertinetza iruditzen zaigun galdera sortu zaigulako: egoera prekarioak bizi ditugu; edo prekarioa da gure bizitza sistemaren fase honetan?

Gutziz ezaguna dugun dimentsio materialaz gain, prekarietateak baditu bestelako dimentsioak. Emozionala, adibidez, sortzen duen ondoeza eta frustrazioa kontutan hartuz. Edo politikoa, zuzenean eragiten duelako parte hartze soziopolitikorako gaitasunean... Hari honetatik tiraka, erraza da prekarietatea aurreko 2024ko Talaia Feministaren dossierrean aztertu genuen buru osasunaren aferarekin lotzea eta demokrazia galeraren atzean dagoen arrazoi bat dela ikustea.

Prekarietatea dimentsio hauek guztiak kontutan hartuz definituz gero, galdera asko sortzen zaizkigu. Besteak beste, zaharkitua ote da prekarietateaz dugun iruditegia? Txiki geratu ote zaizkigu prekarietatearen aurrean egiten ditugun eskakizunak? Zein da prekarietateak izan behar duen lekua eztabaida eta agenda feministan? Nola inkorporatuko ditugu prekarietatearen diskurtsora eta borrokara dimentsio ezberdinak, dimentsio materialari duen garrantzia kendu gabe?

Era berean, prekaritatea indibidualki bizi dugun egoera izateaz gain, langileak garen aldetik kolektiboki jasaten eta borrokatzen ari garen eraso bat da eta, herri gisa, eragiten digun arazo politikoa. Ongizate-ereduaren likidazioa bizitzen ari garen honetan, prekaritatea sistemaren gaurko dominazio eredu dela iruditzen zaigu. Eta horrela izanagatik, existentzia erregimen bat bilakatu da herri sektore gehienentzat. Horrela bada, zein da edo non dago “babesa”? Ultraeskuinak argi du nor den babestu behar dena eta nork ez duen horrelakorik merezi. Ongizate-ereduaren likidazioari ongizate-eredua defendatuz erantzungo diogu gure aldetik?

## **Erresistentziak eta aldatu nahi ditugun existentziak**

Azken atal honetan piztu ditugun borrokei buruz, eraldaketa helburu duten erantzun kolektiboez edota halabeharrez bizirauteko hartzen diren bideei buruz hitz egin nahi dugu. Burutu nahi dugun trantsizio prozesutik eztabaidatu nahi ditugu gainera, gauzak errotik aldatuko baditugu feminismoak ematen digun (eta eskatzen digun) ikuspegi kritikoarekin aztertu behar ditugulako.

Koiunturak eramaten gaitu ongizate-estatuaren likidazio prozesuan gaudela esatera, baina badakigu ez dela egoera koiuntural bat. Kapitalismoak, merkatuak, botere ekonomikoak zituen mugak ezerezean geratzen ari dira eta argi ditugu gauza batzuk: baldintza materialen defentsa funtsezkoa dela, lehen mailako borroka izan behar du. Baina badakigu ere, borroka hauek emankorrak eta eraginkorrak izango direla desmerkantilizazio eta desfamiliarizaziorako urratsak emateko balio duten neurrian.

Oinarrizko soldataren aldeko greba orokorrak erakusten du Euskal Herrian badagoela erresistentziarako gaitasuna eta borrokatzen dugula prekarizazio prozesuari mugak jartzeko. Ez da adibide bakarra, pentsio duinen aldeko herri ekimen legegilea hor dagoelako, erosahaltenaren galeraren kontrako borrokekin eta zerbitzu publikoen defentsan egiten diren borrokekin batera. Duguna ez galtzeko borrokak (soldata egokiak, diru iturri nahikoak, oinarrizko eskubideak eskura edukitzeko aukera) kolektiboak diren neurrian, erresistentzia estrategiak dira. Alegia, galtzekorik ezer ez duenaren ondoan egiten ditugun borroka horiek dira erresistentzia estrategiak. Feministak garen neurrian, hemen Euskal Herrian, eta orain, marraztu dugun testuinguruan:

Zeintzuk dira gaur bizirik eta aurrera egiteko aukerekin ikusten ditugun estrategiak, zein da horiei buruzko gure irakurketa eta zeintzuk dira bereganatu beharko genituzkeen konpromisoak?

Ur handitan sartuz gero, eta aldarrikatzen dugun eraldaketa prozesutik aztertzen baditugu erresistentzia horiek, baldintza materialen aldeko borrokak zein baldintza ziurtatu behar dizkigu? “Bizitzea merezi duten bizitzak” helburu, zein dira ziurtatu nahi ditugun espektatibak? Zein berreraiki nahi dugun jendartea? Zein dira ziurtatu behar diren funtsezko lanak? Zein atzean utzi nahi ditugunak? Zer da desfamiliarizatzea eta desmerkantilizatzea? Eta zein bi prozesu horiek izan dezaketen ibilbidea eta etorkizuna ongizate-eredua berreskuratzeko borroka gailenduz gero?

Bistakoa denez, galdera horiek ez dute erantzun errazik, ezta erantzun jakinik ere. Eztabaida bera da, gure ustez, gaurko momentuan kokatzen gaituena. Aukera ematen diguna eraiki nahi dugun etorkizunaren arabera aztertzeke non gauden eta zertan ari garen, iraganean hainbeste kritikatu eta borrokatu genituen errealitateetara giltzatuak jarraitu gabe.



## ESKUINERATZE PROZESUAK

### Testuinguru globala eta lekutua

Hor ditugu hauteskunde emaitzak Munduan, Europan eta Euskal Herrian. Ez da asmakizuna eskuin muturraren gorakada, bozkek erakusten dute. Hala ere, kasu: erreakzio kontserbadorea ezin da soilik neurtu emaitza elektoralen bidez, eta horien inguruko analisiak bakarrik ez du azaltzen ahal zein ondorio dituen gure herri eta eskualdeetan erreakzio kontserbadoreak berak. Sortzen eta indartzen ari diren egitura politiko, ekonomiko eta sozialak ere badira.

Eskuin muturraren gorakada, ideia kontserbadoreen hedatzea eta mugimendu erreakzionarioen antolakuntza ezin ditugu soilik azken urteetan gertatzen ari den pribatizazio, eta beraz, pobretze orokortuarekin lotu. Jakina, krisi garaietan, polarizazioa handitzen denean, haserrea ere pizten da, eta beraz, gizon zuriaren supremazismoaren adierazpideak ere indartzen dira. Izan ere, krisirik gabe, pribatizaziorik gabe, jendea ondo bizi denetan, horrelako fenomenoak ikustea zailagoa da.

Kontua da krisi hori batera datorrela orain arte unibertsal, nagusi, eztabaidaezin eta ahalguztiduna izan den subjektuaren pitzatzearekin edo, behintzat, haren nagusitasunaren galerarekin; eta galera horrek ondorio zuzenak ditu bai eskuinean baita ezkerrean ere.

Izan ere, ideologia patriarkala alde bateko eta besteko ideologia da, oro har, gure egunerokoa antolatzeko sistema patriarkala baita. Horrek esan nahi du gizon zuriaren nagusitasunaren defentsa

gero eta bortitzagoa izango dela eta eskuinak eta mugimendu erreazionarioek, subjektu nagusi izaten jarraitzeko eta gorputzak diziplinatzeko borrokan jarraituko dutela.

Halere, erreakzioa ezin da ulertu azken hamarkadatan feminismoak, mugimendu feministak eta emakumeen eskubideek izan duten aurrerapena kontuan hartu gabe; hor kokatzen dugu erreakzioaren kausa nagusietako bat. Erreakzio kontserbadorea ez da berria, ez da orain jaio, ez du kausa bakarra eta ahalik eta irakurketa konplexuena egin beharko genuke, zer gertatzen ari den egoki ulertu nahiko bagenu.

Perspektiba patriarkaletik egiten diren eskuin muturraren, faxismoaren edo olatu kontserbadorearen gorakadaren inguruko irakurketek ez digute balio azaltzeko zergatik, oro har, gizon zuriak diren pobretze prozesuaren eraginez erreakzionatzen dutenak, eta ez emakumeak, nahiz eta emakume arrazializatuak, transak eta queer-ak izan, pribatizazio prozesu guztietan gehiago pobretzen diren pertsonak.

Maila globalean gertatzen ari den prozesu hau era konkretuetan lurreratzen da jakina, ez da berdin lurreratzen Argentinan, Polonian, Andaluzian edo Euskal Herrian. Bakoitzean forma konkretu bat hartuko du eta lurralde horretako beste indar politiko eta fenomeno sozial batzuekin egingo du talka, moldatuz, aurre eginez edo dena delakoa.

## **Feminismoa eta antifaxismoa**

Feminismotik ez dugu orain arte gure markoa antifaxismoan kokatu (feminismoa askok antifaxistatzat ulertzen dugun arren), iruditegi hori guztiz maskulinoa izan delarik, orain gu hor kokatzeak korapilo berriak dakartza. Alde batetik, orain arte antifaxismoan kokatu direnekin aliantzak egiteko aukerak eta gatazkak sortzen dira. Espazio ez feminista batean feministak sartzeak dakarren guztiarekin. Bestetik, talka diskurtsiboarekin topatzen gara, antifaxismoan diskurtso antifeministak egon badaudelako, eta marko feminista antifaxismoan kokatzea ez delako hain erraza. Gure diskurtsoek ez dute sarbide onartu orokortua.

Gainera, guk “feminismoaren” barruan dauden diskurtso batzuk faxismoan eta eskuin muturrean kokatzeak mugimenduaren barneko gatazkak areagotzen ditu. Euskal Herrian konkretuki, akordioen izenean talka politikoak “gutxitzeak” errazago zilegitzen ditu diskurtso batzuk. Hegemonia eskuratu nahiak diskurtsoak lausotzen ditu eta erradikaltasuna galtzen da, erradikaltasun horren galeran diskurtso batzuk errazago permititzen dira.

Diskurtso batzuen lausotzeak eta egungo noraez eta etsipen orokortuak indibidualismorako joera areagotu dezake. Batzuetan marko liberala erosiz, eta beste batzuetan erosotasunak bultzatuta marko neoliberalaren antzeko jokabideak edukiz. Marko neoliberalaren izan ala ez. Indibidualismorako joera izugarritzko aukera da marko neoliberalaren indartzeko.

## **Faxismoa berrezaugarritu**

Ezinbestekoa da faxismoa berrezaugarritu eta orain eta hemen nola lurreratzen den zehaztea. Erreakzio faxista definitu (eta beraz, mugatu) egin beharko dugu. Forma konkretuz identifikatu, kontrakoak *dena faxismoa da* logikara eraman baikaitzake, eta faxismoa *dena bada, ez da ezer* izango. Aldi berean, faxismoa definituz bere kontrako borroka ere definituko dugu: antifaxismoa erreakzio faxista zehatzen aurkako borroka gisa identifikatuko dugu, bulkada antifaxista borroka emantzipatzaile konkretuetara kanalizatuz.

Garrantzitsua deritzogu erreakzio antifeministen eta faxismoaren arteko harremanaz nahiz desberdintasunaz hitz egiteari. Gizonen erreakzioa eta faxismoaren hedapena fenomeno ezberdin gisa ulertu behar ditugu, harremanean dauden arren.

Batetik, feministon eta emakumeon, transon eta bolleron botere tasen igoeraren aurrean gizonak erreakzionatzen ari dira. Botere tasak areagotuz joan izana hamarkadetako borroka eta garaipenen ondorioa da eta eragin zuzena du gizonen bizitzetan: gure boteretzeak beraien desboteretzea esan nahi baitu. Pribilegioen galera erlatibo baten aurrean kolektibo gisa ematen ari diren erantzuna da erreakzioa. Erreakzio hau eskuinean zein ezkerrean ari da gertatzen, nahiz eta modu ezberdinean izan.

Mutil gazteen artean modu agerikoagoan ari da gertatzen erreakzioa: ez gazteak helduagoak baino matxistagoak direlako, baizik eta, kontrara, mutil gazteetan ari delako jazotzen pribilegioen galera handiena. Mutil gazteei sozialki mantendu beharreko berdintasunezko jarrera sakonagoa da helduagoei exijitzen zaiena baino. Erreakzio hori bere horretan kezkatzekoa izan arren, kezkarriagoa da horien aurrean posizio politiko ezberdinetatik har daitezkeen posizionamenduak: feminismoa agenda politikoetatik ezabatzeak (erreakzioaren beldurrez) eta zuzenean kide feministak eta oro har emakumeak, disidenteak eta abar ekuaziotik kanpo uzten dituzten aukera politikoak legitimatzeraino, berriz ere subjektu unibertsala (gizon zuri hetero...) berregiteko saiakeran.

Bestetik, faxismoa sistema krisian sartzean aktibatzen den erantzuna da. Erantzun horrek sistema bera indarrez ezarri nahi du, bere adierazpiderik bortitzena bilakatuz. Modu berezitan eragiten digu neska, trans eta bolleroi: misoginia, borroka feminista arazo sozialen kausa gisa identifikatzeko joera edo gure borroka kriminalizatzen duten adierazpenak tarteko. Zentzu honetan, antifaxismoa ere borroka feministatik aurrera eramatearen beharrea berresten gara.

Begi bistakoa da harremana duten fenomenoak direla, faxismoak gizonen erreakzioa elikatzen baitu. Ordea, harremanean egoteak ez du esan nahi berdindu egin behar ditugunik.

Garrantzitsua da gizonen erreakzioa eta faxismoa bereiztea eta eraso antifeminista orori eraso faxista deitzea ekiditea, arrazoi ezberdinengatik:

- 1) *guztia* faxismoa izateak faxismoa *ezer* ez izatea ekar dezake, zabaltasunean galdu gaitzke;
- 2) eraso sexistei aurre egiteko mekanismo eta borroka molde feminista espezifikokoak diluitu daitezke antifaxismo zabalaren baitan;
- 3) faxismoaz ari garenean gatazka kanpoan dago beti: gizonen erreakzioaren kausak kanpo faxismo batean kokatzeak gizonen erantzukizuna ezabatu dezake;
- 4) gizonen erreakzioa borroka feministaren bidez lortutako garaipenen erantzuna izanik, faxismoari egozteak lortutako garaipenen aitortza eza edo despolitizazioa ekar dezake.

Garrantzitsu deritzogu Euskal Herriko panorama espezifikoari begiratzea, faxismoak gurean izan dezakeen lurreratzeaz hitz egiteko.

Alde batetik, gakoa da gurean horrelakorik gertatu ezin denaren ideia alboratzea. Argentinako adibidea jarri izan da maiz: bazegoen uste sakon bat Argentinan faxismoa lurreratu ezin zenarena, mugimendu sozialak oso indartsuak direlako, diktadurarekiko haustura bat egon zelako, Argentinako estatu kriminala epaitua izan zelako... Prozesu demokratizatzaile sakon batek populazioaren zentzu komunean eragina izan zuelako, alegia. Immunitate egoera batean zeudela uste zuten eta orain

eskuin muturrak gobernatzen du. Zentzu berean, okertuko ginatke pentsatuko bagenu gurean badagoela faxismoaren lurreratzea ezinezkoa egiten duen DNA bat.

Baina,aldi berean, Euskal Herriko egoera ez da bestelako herrialde batzuen berdina. Gurean azken hamarkadetan egondako borroken kristalizazioak badakar Euskal Herriko zentzu komuna ezkertiarra, feministagoa... izatea, oro har, mendebaldekoa baino. Badaude gaurkotasuneko gako-elementu ezberdinak ere: antolakunde eta mugimendu politiko emantzipatzaile asko, ehun komunitario handia eta komunikabide ezkertiar nazional zein lokalak. Eta garrantzitsua da hori presente izatea: 1) indar korrelazio hori baliatu ahal izateko; 2) diagnostiko egokiak egitea funtsezkoa delako kudeaketa egoki baterako.

Beraz, faxismoaren diagnostiko propioak behar ditugu, Euskal Herrian kokatuta: indar korrelazio propioan kokatuz eta, aldi berean, immunitatearen ideia alboratuz.

Immunitatearen ideia alboratze horretan, interesgarria litzateke aipatzea badaudela “pasabide” batzuk faxismora bide eman dezaketenak mugimendu sozialetan. Krisi testuinguruetan ugaritzen dira pasabide hauek, zeinak subjektu esentzial edo puruaren eskubideen defentsan posizio baztertzailak hartzen dituzten:

- Abertzaletasunetik → nazio baztertzailera: identitate nazionala arriskuan jartzen dutenaren mezuarekin migratzaileen aurka jotzea.
- Klase defentsatik → klase esentzialismora: langile klasea unibertsaltzat hartu eta mugimendu feminista, antirrazista, etab. klase borrokaren zatitzaile bezala ikustea.
- Feminismotik → “terf”era: emakumearen eta bere eskubideen defentsan transak mehatxua direla argudiatzea.
- Lurraren defentsatik → konspirazio teoretara: ingurumen-arazoen izaera sistemikoa ukatzea, hauek etsai ezkutuei egotziz.

Ildo horretan, gakoa da pasabide horiek borroka eremu eta mugimendu sozial ezberdinetatik modu argian itxi eta diskurtso hutsal, sinplista eta zapaltzaileen aurrean marko feminista eta antifaxista ezartzea.

## **Eztabaidarako galderak**

### **1. Testuinguruari dagokionean**

- 1.1. Non eta nola ari dira lurreratzen Euskal Herrian eskuin muturraren diskurtsoak?
- 1.2. Eskuin muturra, faxismoa eta eskuineratze prozesuak bereizten badakigu? Bereizi behar ditugu?
- 1.3. Gizonen erreakzioa eta faxismoaren hedapena fenomeno ezberdin gisa ulertu behar ditugu, harremanean dauden arren? Nola bereizi ditzakegu? Zein dira ondorioak?

### **2. Faxismoari dagokionez**

- 2.1. Dena faxismoa da logika ekidinez (faxismoa dena bada ez da ezer izango) eta begirada Euskal Herrian kokatuz, nola identifikatzen dugu faxismoa?, Faxismoa sistema krisian sartzean aktibatzen den erantzuna da?, Nola identifikatzen dugu faxismoaren kontrako borroka?

2.2. Gurean faxismoaren lurreratzea ezinezkoa egiten duen DNA bat ez egon arren, badago Euskal Herriko zentzu komun ezkertiarra eta feministagoa?, Nola baliatu indar korrelazio hori?, Nola zaindu?

2.3. Zeintzuk dira faxismora bide eman dezaketen pasabideak mugimendu sozialetan?

### **3. Erreakzio patriarkalei dagokienez**

3.1. Erreakzio patriarkala pribilegioen galera erlatibo baten aurrean gizon zuriak kolektibo gisa ematen ari diren erantzuna da?

3.2. Nola lurreratzen da Euskal Herrian?

### **4. Feminismoa eta faxismoa**

4.1. Zein leku izan behar du antifaxismoak feminismoan?, Eta zein leku feminismoak antifaxismoan?

4.2. Nola ekidin feminismoaren barruan gerta daitezkeen faxismorako pasabideak?

### **5. Aurrera begira**

5.1. Nola garatuko dugu marko feminista antifaxista propio bat?



## SUBIRANOTASUNA LEHIAN

### Mahai-ingurua

Genozidioa Palestinan, Ukrainako gerra, eraso inperialista Venezuelan eta Groenlandiako baliabideak espoliatzeko inbasio mehatxua. Egun, ez da giro. Konstatazio bat: subiranotasuna galtzen ari gara. Ipar globaleko inperialistek estatu eta nazio txikien subiranotasuna urratzen eta baliabideak ebasten jarraitzen dute, lurraldearen, herrien, gorputzen eta bizitzaren gainetik. Trumpen itzulerarekin, subiranotasuna, protekzionismo ekonomikoa eta ideologia supremazista eta kontserbadorea eztabaidaren erdian jarri dira. Noski, kapitalaren interes erreakzionarioarekin lotuta. Gaur arteko, gutxi batzuen eta potentzia nagusien kapitalaren metaketa bultzatu asmoz, *gehiengoan* (herrien, lurraldeen, lan esku prekarioenen, arrazializatuen, emakumeon\*... ikusezin guztion) subiranotasuna lapurtuz. Sistema kapitalistak, inoiz baino gehiago, bizitzaren aurka eta kapitalaren metaketarako bidean jarraitzen du.

Testuinguru horretan zerbait gertatu da 2025. urtean: II. Mundu Gerraz geroztik eraikia zegoen nazioarteko arkitektura eta araubidea zartatu da. Aurreko hamarkadetan garatutako globalizazioaren -betiere neoliberal, ekonomikoa, finantzarioa, kulturala...- eta ustezko garapen amaigabearen -noren bizkar?- ideiak zartatu dira. 2025eko gertakariak beste testuinguru global bateranzko trantsizio autoritario eta biolentoa erakusten dute, non subiranotasunaren eta babes juridikoen berme guztiak ezabatzen diren. Egun, nazioarteko konpromisoen eta araubidearen markoak higatu dira, eta honek indarraren legea, inpunitatea eta indar patriarkala norma bihurtu ditu.

2025. urteko Euskal Herriko koiunturan agerikoak izan dira nazioarteko gertakari hauen ondorioak eta erreplikak. Gurea gainera aitortza eta gaitasun politiko osoa ez duen herria izanik,

babesgabetasun-egoera handiagoa du eta burujabe eragiteko gaitasun txikiagoa du. Ondorioz geure gorputzen, bizitzen, herriaren, hizkuntzen, baliabideen, legeen... subiranotasuna joko zelai bilakatu da.

Zer gertatu da 2025 honetan? Euskararen normalizazio-politiketan esku-hartze judizial etengabekoa honen adibide da. Ereku sozio-sindikalean, gehiengo sindikalak lanbide arteko soldata eta, oro har, lan eta ekonomia politikak Euskal Herrian erabaki daitezzen eskatu du; euskal pentsionistek pentsio minimoak hemen erabakitzearen beharra azpimarratu dute. Euskal lurraldeek egiazko alde biko *berdintasunezko* harremana eskatu dute estatu frantsesa eta espainolarekin. Botere zentralaren eta estatu sakonaren oihartzunek iraganeko mamuak esnarazten dituzte, batetik emakumeon\* burujabetza zalantzan ezartzen (abortu eskubidea zalantzan, indarkeria matxistaren ukazioa, transfobia...) eta, bestetik, gu bezalako nazio ez aitortuentzat/subalternoentzat ukazio osoaren mehatxua zabalduz, eta honen aurrean, nazio aitortza eta *Herri Libre bat!* izateko aldarrikapena kaleetan, frontoietan eta zelaietan presente egon da.

Talaia Feministatik egiten dugun koiuntura azterketara hipotesi bat ekarri dugu: subiranotasuna galtzen ari gara eta subiranotasunaren aldarrikapena lehia politikoaren erdigunean kokatu da. Emakume\* feminista soberanistaren kokalekutik, ezinbestekoa zaigu gertatzen ari den honetaz gogoetatzea: nola ulertzen dugu subiranotasuna bera?, zer gertatzen ari da?, nola irakurtzen dugu testuinguru hau euskal emakume\* feminista subiranistok?, zein posizio politikoak ditugu subiranotasunaren lehia horietan?, nola eragiten digu?, zein ondorio ditu euskal emakumeontzat\* subiranotasunaren galtze honek?

Talaia Feminista Unean, hausnarketa-formatu ezberdinetatik helduko diogu gaiari:

Mahai inguruari hasiera emateko, subiranotasunaren, boterearen eta erabakitzeko eskubidearen - eta gaitasunen- inguruko eztabaida bera problematizatzen saiatuko gara. Horretarako, Uzuri Aboitiz-ek subiranotasun feministaren pentsamendu-markora hurbilduko gaitu. Subiranotasuna gure bizitzen gainean erabakitzeko gaitasunen zein askatasun esparruen berreskuratze prozesu moduan ulertuta.

Bestetik, solasaldi bat izango dugu Ainhoa Etxaide eta Kizkitza Gil de San Vicenterekin. Subiranotasunaren eztabaidan euskal feministon kokalekutik sakonduko dugu. Jada aipatutako galderei erantzuten saiatuko gara: zein da Euskal Herriaren gaitasuna eta zein ondorio du subiranoa ez izateak?, nola eragiten digu honek?, zeintzuk dira emakumeen\* askatzerako edo Euskal Herria feminista baterako trantsizioan behar ditugun subiranotasunak?, edo alderantziz, ze trantsizio feminista behar dugu subiranotasunerako?, ze botere?, ze beharrak ditugu?, norekin egin nahi dugu trantsizio feminista?, eta momentu honetan, non gaude?, ze posizio politikoak ditugu koiunturan gertatzen ari diren subiranotasun lehia horien aurrean?, nola kokatzen gara estatus politikoaren eztabaidetan?, zein posizioa dugu emakume\* feminista subiranista bezala?

Azkenik, plenarioan eztabaida bultzatuko dugu. Ariketa laburra izango da: nola eragiten digu soberaniaren falta honek?, zer egin beharko genuke gure botere eta erabaki gaitasunean sakontzeko?, norekin egin beharko genuke?